



Bertso Olariak bertso eskolako kideek ere parte hartuko dute jaialdian. HITZA

Biharko jaialdian Legazpiren historian herritarrek izaniko parte-hartzea oroituko dute

Legazpi » 400 urtez aske dinamikaren barnean jaialdi erraldoia ikusteko aukera izango dute 900 lagunek polikiroldegian.

ALEX AREIZAGA

Larunbat honetan, jaialdi erraldoia ospatuko dute Legazpin, 400 urtez aske kanpainaren barruan. Jaialdi honetan 300-325 herritar parte hartzen ari dira, bai antolaketak eta baita aktuazio lanetan ere, ikuskizuna inoiz baino herrikoia-agoa eginez.

Jaialdi honetan herritarren parte hartzea bermatu nahi izan dute antolatzaileek. Izan ere, herriaren askatasuna lortzean inplikatu ziren bezala, 400 urte geroago ere hau gogoratzeko eta omentzeko jaialdian ere parte hartu dezaten lortu nahi dute. Mendeetan zehar herriaren historian izan diren une eta gertaera garrantzitsuetan biztanleek parte hartu zuten moduan hartuko dute biharko jaialdian ere. Eraberean, herritarrek biltzeko aitzakia ere izango da ikuskizuna. Izan ere 900 pertsonentzako lekua izango da kiroldegian. Antolatzaileek sarrerak eskuratzerako orduan azkar ibiltzeko eskatu die herritarrei, dagoeneko agortzen ari baitira.

Legazpiren historia

Hilabete luzeak igaro dituzte legazpiarrek jaialdi hau antolatzen, lehen bilerak urtearekin batera hasi baitziren. Lan gogorra izan bada ere, gustora aritu dira lanean.



400 urtez aske dinamikaren barruan kokatzen da gaurko jaialdia. ASIER ZALDUA

Jaialdian duela 400 urtetik gaurdaino herriak bizi izan dituen une edo gertaera garrantzitsuen gogoratuko dira eta horretarako guztiak denboran lotzen dituen gidoi bat jarraituko da. Honela, herriko kultur talde bakoitzak rol bat hartu du jaialdirako. Rol edo paper hauek larunbatean interpretatuko dituzte, bakoitzak bere garaia edo gertaera dantzaz, musikaz edo kantuz irudikatuz, baina horretarako prestaketa lanak asteetan lu-

zatu dira, janzkera eta itxura ere zaindu beharra baitago.

Talde bakoitzak bere arropak egin behar ditu eta horretan lan handia egin dute herritarrek. Beste batzuen artean, txistulari taldeak, errondailak, musika bandak, abesbatzak, bertso eskolak edota dantza taldeak hartuko du parte ikuskizunean.

900 sarrera

Ikuskizunerako sarrerak liburutegian eskuratu ahal izango dira eta 900 pertsonentzako lekua izango da kiroldegian. Txartelak bihar eguerdian jasoko dituzte eta baten bat soberan geratuz gero, ikuskizunaren sarreraren eskainiko luke. Ateak bihar arratsaldeko 18:45ean ireki nahi dituzte, jendeak aurrez lasai sartzeko aukera izan dezan; jaialdia 19:30ean hasiko da. Orduerdi beranduago ateak itxiko dituzte, eta hortik aurrera ez da jada sartzeko aukerarik izango.

Zenbakia

325

■ **Lagun.** Hori izan da guztira jaialdi honetarako antolakuntza eta emanaldi lanetan parte hartu duten herritarren kopurua.

Laburrak

Bilboko manifestaziorako autobusa larunbatean

GOIERRI » Larunbatean Bilbon *Salbuespen egoerari stop* lemapean egingo den manifestazio nazionalera joateko autobusa izango da Legazpitik, Urretxutik eta Zumarragatik. 15:30ean Elizondo paretik irtengo da lehen kasuan, eta beste bietan 15:45ean izango da irteera, Aldiri paretik. Bertan joan nahi duenak izena eman beharko du aurrez Legazpiko Arrano tabernan edota Urretxuko Aldirin. Era berean, ilegalizazioak salatuzko gaur bilkura egingo dute Urretxuko udaletxean 19:00etatik 21:00etara eta bihar elkarretaratzea egingo dute Zumarragako udaletxe parean, eguerdiko 12:00etan.

1963an jaiotako enafaria izango da hilaren 25ean

LEGAZPI » 1963an jaiotako enafaria egingo dute urriaren 25ean Legazpin. Afaria Azpikoetxe jaietxean egingo dute eta izena eman nahi duenak jaietxean bertan edota 943 73 13 87 telefonora hots egin da egin dezake. Honetarako epea urriaren 18an amaituko da.

Odol emaleak izango dira gaur Jubilatuen Etxean

LEGAZPI » Legazpiko odol emaleen elkarteak, odola emateko deia egin du gaurko. Arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara izango da horretarako aukera, Jubilatuen Etxean.

Ordutegi berriak izango dira Tai Chi ikastaroetan

LEGAZPI » *Wing Chun Tai Chi* elkarteak ordutegi berria antolatu du aurtengo bere ikastaroetarako. Astelehenetan eta asteazkenetan izaten dira eta betiko ordutegiaz gain, 20:00etatik 21:00etara ere egingo dira hemendik aurrera. Izena emateko edota informazio gehiago lortzeko, klase egunetan hasi aurretik, Haztegi ikastolara gerturatu beharko da.

Hitzaldi berri bat egingo da Gizarte Zentroan

LEGAZPI » Hilaren 8an «Menpekotasuna duten pertsonen zuzenduriko kalitate dun arreta» hitzaldia emango dute Gizarte Zentroan. Arratsaldeko 18:00etan izango da, iragan hilaren 24an eman zen hitzaldiaren bigarren zatia. Ingemata fundazioan lan egiten duen Amagoia Mundumendiarrak mediku-gerontologoak hiz egingo du bertan.

Santanastasiaren balorazio positiboa egin du Urretxuko Jai Batzordeak

Urretxu » Txozna Batzordeak gaituratu behar izan dituen arazoak izan dira balorazioko puntu negatiboak.

ALEX AREIZAGA

Herenegun arratsaldean Urretxuko jaien balorazioa egin zuen Jai Batzordeak. Orokorrean balorazioa «ona edo oso ona» izan zen, planteatu ziren erronkak betetzea lortu delako.

Jaiak pentsatu bezala irten dira eta kaleetan jende asko izan da, nahiz eta iragan urteekin alderatuta, gune batzuen leku aldaketak jendea beste eremu batzuetara eraman duen.

Nabarmentzeko kontuen artean, Domingo de Mendiaratz plazako haur parkeak izan duen arrakasta azpimarratu dute batzordeko kideek. Hiru egunetan zehar plaza honetan haurrentzako ekimen ugari antolatu dira, parte hartze maila handia izan dutenak. Hala ere, balorazioan parke hau hain urrun jarri izanak jendearen eta giroaren lekuz aldatzean eragina izan ahal izan duela ere onartu dute. Beste aldean igandeko karrozten ibilaldiak izan zuen iraupen luzea aurkitzen da; ikusten egon ziren herritar askoren ahotan egon zen iritzi hau.

Txoznetan arazoak

Txoznen arloan egon da baloraziorik kaxkarrenetako bat. Izan ere, aurtengo arazo askori aurre egin behar izan die Urretxuko jaietako Txozna Batzordeak.

Alde batetik udalak emandako aurrekontutik azpiegitura ugari kontratatu behar izan dituzte eta aurrekontuaren zati handi bat horretan joan zaie. Esan beharra dago Gernikako Arbola plazan eskaini zen kontzertu bakar batek ia txoznentzako jaietarako aurrekontua berdintzen zuela. Arazo hauer, musika taldeak lotzerako orduan izandakoak gehitzen zaizkie, azken orduan talde ugari erori baitziren zerrendatik.

Hau gutxi balitz, jende gehien erakarriko zuen kontzertua burutu behar zen egunean argindarra joan zen txozna gunetik eta hurrengo goizera arte ezin izan zen berrezarri. Arazoa enpresa igorlean bertan zegoen eta batzordean galerak konpentsatzeko neurriak hartuko direla adierazi zen.

